


Astekaria

BARRREN

elgoi



Santa Ageda:
Tradizioa, koplak bidez



ELGOIBARKO MERKATARI ETA ZERBITZU ELKARTEA

3 LAU HANKATAN

"Beti dago momentu larrienean etekina ateratzen dakiena, eta besteen egoera jasangaitzetik bere buruaren publizitatea egiten duena".

Diana Perez de Albeniz

6 ERREPORTAIA: ETXEBIZITZA EROSTEA: ESKUBIDEA ALA PRIBILEGIOA

Hiru logela, sukaldea, egongela eta bi komun, guztira 70 m²ko etxebizitza berri batek, 15 eta 20 milioi bitarteko salneurria izan dezake.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: BASERRIKO ALA KALEKO BIZIMODUA?

Amaia Basterretxea

"Hamabost urte arte baserrian bizi izandakoa naiz, horregatik ez diot inori hango bizimodua opa".

Anselmo Salazar

"Nekazaritza bizibide gisa aukeratu nuen, lan hori egiteko satisfazio moralagatik".

12 BERBETAN

"Bizitza aurrera ateratzeko arriskatu egin behar da". **Blanka Larrañaga.**

14 KIROLA

GAIA: JOKU ESKOLARRAK (I)

ELKARRIZKETA: **Iñigo Arriola.**

16 ELKARTEETATIK BUELTAN

ESTARTA ELKARTEA: SIGMAKO LANGILEEK AUZOARENTZAT SORTUA

17 KULTURA

SANTA AGEDA

San Blas opilen usai artean, beste ospakizun zahar bezain herriko baten txanda heldu da: Santa Ageda.

PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak	741155
Txanda hartzeko	743354
Alkoholiko Anonimoak	742950
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitala	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Anbulatorioa)	743936
Odol Emaileen elkarte	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua	742158
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC)	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
Polikiroldegia	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

KOMIKIA



Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkarte
☎ 74 16 26

Laguntzailea
Elgoibarko Udala

Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirreazaldeg

Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu

Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton
Bergara, Edurne Bilbao,
Rosa Iriondo, Jose Inazio
Sarasua

Kazetaria
Ainhoa Lodoso

Maketatzailea
Maite Rementeria

Publizitatearen diseinua
Luis Mari Zubiaurre
Maite Rementeria

Publizitatea
Amaia Leiaristi

Kolaboratzaileak
Miriam Aldazabal, Alberto
Ansuategi, Isabel Ansola,
Joxin Arregi, Belen
Arrizabalaga, Agur Miren
Barandiaran, Lorea
Gorostiaga, Jon Eugi,
Hasier Etxeberria, Maite
Iriondo, KOKOE, Aitor
Lodoso, German
Meabebazterretxea, Jasone
Osoro, Diana Perez de
Albeniz, Lorea Perez de
Albeniz, Andoni
Rementeria, Eduardo Sanz,
Aitor Zabaleta.

Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia

Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

Tirada
3.000 ale

Lege gordailua
1.025 SS-92

elgoi**BARREN**ek ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta
iritzien erantzunkizunik.

LAU HANKATAN



Diana Perez de Albeniz

Zein eskuzabalak diren!

Hor ibili nintzen, gabonak aurreko egunetan, aspaldiko partez kuartoko txokoak apaintzen edo utziak nituen nere nenuko eta nanzia xaboibañu berotan garbitzen eta orrazten, niri jada fabore handirik egiten ez bazidaten ere, umeren batek, gaurko superjostailu baten ezean, gustora jaso zituaren esperantzarekin, bigarren egunerako hanka eta begi bana aterata edukitzeko besterik ez bazen ere. Izan ere, familia bat baino gehiago daukagu herrian inolako jostailurik erosteko ahalbiderik ez duena eta urteetan zehar oraindik osorik zeudenaren penaz bota ez ditugunak, hobe izango dira etxe horietan, ez?

Ez dut uste bide horretatik bizikleta asko eskuratu dutenik ez, edo behintzat ez dut nik, eztakitzein entpresak eztakitnolako herriei egoera estuan aurkitzen diren familietako haurren artean banatzeko eztakitzenbat bizikleta oparitu dizkienaren bezalako ezer entzun.

Beren zorionerako bizikleta horiek hartu dituzten haur bosniarren poza egunkarietako argazkietan ikusi nuenean, bi modutako pentsamenduak etorri zitzaizkidan burura. Batetik, nola ezin

poztu? Dena gutxi da ume horien bizkargaineko zori-txarra arintzeko, luzarorako ez bada ere. Baina bestetik, hain opari oparoea egin zutenak kriston bihotzeko per-tsona eskuzabalak zirela sinistu behar al nuen? Edo, senarra lan-gabezian, hiru semealaba eskolan eta soldata miserable bat eskuratu ezinean dabilen emakumearen lekuan jarri, eta, berriaren aurrean eztarri eta heste arteko barnebidetan estutu zaion puntua imajinatu?

Beti dago momentu larrienean etekina ateratzen dakiena, eta besteen egoera jasangaitzetik bere buruaren publizitatea egiten duena. Zein onak diren! Zein esku zabala duten! Horrelako hamaika eta hamabi adibide aurki ditzakegu, aurpegiaren alde ederra erakusten dakitenak topatzera iritsi arte. Beraiek hain azkar eta argiak badira, gu ere azkar eta argi ibili beharko gara aurpegi eder guztiak sinisteko tranpan ez jausteko. Hemen ere badago laguntza beharrik; zer egin behar dugu? publizitate iturri daitekeen egunkaria-zaleko berri izatera heltzen garen egu-nera arte itxoin?



DEKORAZIOA

**PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

usoa

KAFETEGIA



Santa Ana, 6. Tel. 74 25 20

Bidea Konpontzeko beharra:

San Roke Auzotik Makina Herramintaren Institutura (IMH) bitarteko bidea gero eta okerrago aurkitzen da. Oinezkoek erabiltzeko bidea, baina autoak ere bertatik dabilenez, ez litzateke gaizki egongo piska bat hobeto egongo balitz. I.M.H.ra joateko aukera ona ematen du eta trafikoa herritik desbideratzeko bide egokia da. Ea ba laster konpontzen duen "norbaitek", premia ona du eta! Bidea konpontzeaz aparte argiak jartzea ere komenigarria da.

Jende asko ibiltzen da bidetik zehar eta ilundutakoan arrisku-tua da bertatik ibiltzea.

San Roke auzoko batek

elgoiBARREN lapurren gogoko

Eskutitz honen bidez, pasa den larunbatean gertatu zitzaidan zerbait salatu nahi dut.

Astero bezala, elgoiBARREN astekariaren zain nengoen larunbat goizean. Kalera irteterakoan, astekaria buzoian sartuta zegoela ohartu nintzen. Erosketa batzuk egin behar nituenez, bueltan hartzekotan laga nuen. Handik ordubetera, konprak egin eta gero, etxerantz abiatu nintzen astekaria hartu eta begiradaxo bat emateko asmoarekin. Baina, hara! etxetik irteterakoan buzoian ageri zen astekaria, ez zegoen bere tokian. Eskerrak ogia erosterakoan beste

ale bat eman zidaten.

Irakurri dudanez, astekaria debalde omen da, beraz, nire buzoian eskuak sartu duenari harpidedun fitxa betetzeko esango nioke. Eta harpidedun fitxa betetzea lan handiegia bada, telefono bat ere badutela jakin dut.

Aurrerantzean eskuak poltsikoan eramango dituzulakoan, agur t'erdi

Andoni L.

OHARRA:

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Kezka, iritzi, galdera, erreflexio... adierazteko aukera ezin hobea daukazue bertan.

Eskutitzak idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta N.A.N.a izan beharko dute. Argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatzen badu, inizialak soilik agertuko dira.

Kritika eta gaitzespen mota guztiak onartuko badira ere, ez da tokirik izango irainduz edo errespetu faltaz idatzitako eskutitzentzat.



ONGI ITURGINTZA

- GASA
- BEROGAILUAK

Urasandi 5 behea
Tel. 74 10 82

JUARISTI

ARROZTEGIA

- ETXEBIZITZETAKO ERREFORMAK
- LEIHO ISOLATZAILEEN FABRIKAZIOA

ETA INSTALAKUNTZA
Fixo edo oszilakorrak,
Egurrezko nahiz mistoak
 (Aluminio eta egurrez edo brontze eta egurrez).

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

BULEGOA:
 Ubitarte 2 behea.
 Tel 74 13 33

LANTEGIA:
 Santa Ana 16.
 Tel. 74 29 94



24 orduz zuekin

Arrate ☒ 212 (20.600) Eibar
 ☎ 12 01 61/73 Fax 12 01 73



Hain hurbiletik begiraten ari zaren erretratu hau **Garbiñe Uriguenek** laga digu eta 1954. urtean ateratakoa da. Konturatuko zinetenez, San Bartolome eleiz atarian dauzkagu, Santa Ageda eskean hasteko prest.

Egia esan, ez dago jende traba handiegirik baina, ez da harrizkoa, egingo zuen hotza kontutan izaten badugu. Izenak aipatu aurretik, detailtxo bat: Konturatu al zarete eskularruak ipinita dauzkan bakarra soinu-jolea dela? Ez ote zuen behintzat soinua guante horiek jantzita joko!

Ikus dezagun zeintzuk diren: goitik hasita, ezkerretik eskumara:

Eduardo Elorza, Jose Mari Mugerza "Ruso", Angel Astigarraga eta Fernando Azpiazu.

Jose Zabala, Jose Gabilondo, Txomin Gabilondo, Ildefonso Ansola "Ilepon", Jose Mari Zabala eta Alberto Zabala.

Manolo Riaño, Rafael Areitio "Peron", Sabin Beristain, Roke Gabilondo "Serora", Arturo Zubiaurre, Jose Mari Gil, Prudencio Juaristi "Ilunpe", Antonio Gabilondo.

Canuto Gabilondo "Kanuto", Sabin, Alberto Ezenarro "Kakume", "Txantxiku", German Uriguen "Etxegiña", Javier Zengotita "Patri", Karmelo Gil "Karmelito", Patxi Igartua, Jose Mari Monje.

Kopilan FOTOKOPIAK
PLANOAK
ENKUADERNAKETAK

Ibaiarte Polig. Industrial, A-6 Tel. 74 35 51 - Fax publikoa 74 00 12

TXURI BELTZ

Taberna San Franzisko 38

Etxebizitza erostea: eskubidea ala pribilegioa?

Gaur egun etxebizitza erostea ezinezkoa bihurtu da askorentzat, gazteentzat batez ere. Momentu honetan Elgoibarren etxebizitza ugari dago salgai, baina etxea ordaintzeko eskatu behar diren kreditu garestiegiak eta aldizkako lan kontratazioek, pribilegio bihurtu dute eskubidea izan beharko lukeena.

Hiru logela, sukaldea, egongela eta bi komun, guztira 70 m²ko etxebizitza berri batek, 15 eta 20 milioi bitarteko salneurria izan dezake. Gutxi dira horrelako gastu batean sartzeko adorea dutenak, eta are gutxiago kredituen interesei aurre egin diezaieketenak. Etxebizitza falta dagoela sarritan entzun izan da. Elgoibarren momentu honetan 433 etxebizitza dago hutsik eta datozen urteotan 831 etxebizitza berri egiteko asmoa dago. Elgoibarren, 9 milioi pezeta balio duen bigarren eskuko etxebizitza bat, Ermuan, 6 edo 7 milioigatik eros dezakegu. Halere, Deba Garaia inbiliaria-koek esan digutenez, azkenaldi honetan merketu egin dira etxebizitzaren salneurriak. Baina dirudienez,

Etxebizitza erostera dijoanak, oinarrizko komodidadeak eskatzen ditu: igoigailua, herri erdian egotea...



↳ Salgai dagoen etxe asko dago Elgoibarren.

oraindik ere garestiegiak dira gehienentzat.

Etxebizitza berri ugari egin da azkenaldian Elgoibarren. Gainera, Santa Klarako komentua zegoen tokian etxeak egiteko proiektua onartua dago eta IMH inguruan etxebizitza unifamiliarrak egiteko proiektua

ere bai.

Etxebizitza erosterakoan jendeak duen arazo nagusia, kredituen interesak handiegiak izatea da. Eusko Jaurlaritzak lehendabiziko etxebizitza erosi nahi duenarentzako dirulaguntzak ematen ditu. Bi motatako laguntzak dira

BETI ARGÍ, S. L.

Erregalu artikulua
Instalazio orokorrak
Sukaldeko tresneria.

ERROSARIO 6 behe. Tel: 74 16 44.



INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Rosario 34, 1 ez. Elgoibar
Tel: 74 42 83 Fax: 74 42 53

MAITE

GOZOTEGIA
IZOZKIAK
Berton eginak



San Frantzisko, 15
Tel. 74 16 88

Etxebizitzak Elgoibarren

Batazbesteko prezioak:

Berria.....	15-20 milioi pta.
Berri garestiena.....	26 milioi pta.
Berri merkeena.....	11 milioi pta.
2. eskukoa.....	5-10 milioi pta.
2. eskuko garestiena.....	11 milioi pta.
2. eskuko merkeena	5 milioi pta.
Alokatua.....	30.000-50.000 pta. hileko

Beste datu batzuk:

Gehien saltzen direnak	8-10 milioi bitartekoa
Hutsik dauden etxebizitzak	433
Egingo diren etxeak	831
ETXEBIZITZAK, GUZTIRA	3580

Eusko Jaurlaritzak ematen dituenak: batetik, banketxeari eman beharreko interesen zati bat ordaintzea, kasu batzutan erdia ere ordaintzen duelarik, eta bestetik, itzuli behar ez diren diru-laguntzak. Demagun, 7 milioitako etxebizitza bat erosteko, banketxeak %14ko interesa eskatzen duela. Eusko Jaurlaritzak interes horren %8,5 edo %6a ordain lezake, beti ere erostera doan pertsonak baldintza batzu bete-ko balitu. Itzuli behar ez diren diru-laguntzen

kopurua 300.000 edo 400.000 pezeta bitartekoa izan daiteke. Laguntza hau jasotzen duen etxebizitza, babes ofizialeko etxebizitza bihurtzen da automatikoki eta honez gain, etxearen eskrituren zerga ez da ordaindu behar. Bestalde, alogeran bititza ia ezinezkoa da Elgoibarren. Etxebizitza gutxi dago alogeran eta daudenak, gainera, garestiegi. Gaur egun etxebizitza bat erostea edo alokatu nahi izatea bukaerarik gabeko abentura bihur daiteke.



➔ Etxebizitza erostea, bukaerarik gabeko abentura da.

Eusko Jaurlaritzaren laguntza jasotzeko bete behar diren baldintzak:

Derrigorrezkoak:

- Lehenengo etxebizitza izatea.
- Etxebizitzaren m2aren prezioa 100.000tik gorakoa ez izatea.

Kontutan hartzen dituztenak:

- Soldata.
- Etxebizitzaren prezioaren %20a aurreztua izatea.
- 30 urtetik beherakoa izatea.

1992. urtean 146 laguntza eman ziren Gipuzkoan.

San Bartolome 9 ☎ 74 07 44

Richi Fleapaindegia

KIROMASAI

- GERRIKO MINAK - ERREUMAK
- ZAINTIRATUAK - ARAZO MUSKULARRAK



Errosario 6 - 1 Tel. 74 30 11

JOSE ANGEL ZABALA
URDAITEGIA

Berezitasunak:

Bakilaua

Txerrikiak

Merkatu Plaza 33-34

Kaleko ala baserriko bizimodua?

Askotan izaten dugu gogoko txikitako oroitzapenak gogoratzea, are gehiago berauek gustu ona utzi digutenean. Hala da nire kasuan ere. Dena den, orain egiten zaidan planteamendu honen aurrean, zaila zait aipatu oroitzapen guztiak zaku berean sartzea.



Hamabost urte arte baserrian bizi izandakoa naiz eta, egia esan, hango bizimodua ezagutu eta bizitzea tokatu zaidalako, ez diot halakorik inori opa.

Goizeko betan altxatuta, behie esnea jaitsi, garia jo, garia batu, belarra moztu eta abarrak eginaz, gaua sartu artean aritu behar izaten nintzen. Hezurak ondo jorratuta, atsedean gehiegirik gabe hurrengo egunak eskainitakoari eutsi behar.

Bestalde, lan guzti hori eginda ere, nekez atera dakioke baserriari errentagarritasunik. Izan ere, kalean zure lanaren truke eta askoz lan gutxiago egirik daukazu soldata, ez dago baserrian ateratzen denarekin konparatzerik. Gehiago esango nuke: baserriar askok baserriari eutsi badio, kalean lan egin eta hango soldatari esker izan da. Halaber, kaleko bizimodu hori behin ezagututa, zail samarra da berriro ere lehengora bueltatzea.

Umeen ikasketak ere hor dauzkagu adibide. Denok dakigu zenbat eskatzen zaion arlo honetan gaurregungo umeari. Dakigun bezalaxe, gure umeek ondo prestatu ezean, ezer gutxi egiterik

daukate. Eta guzti honi ganoraz erantzun ahal izateko, baserrian bizitzeari oztopo handia ikusten diot, horrelakoetan gurasoak, umeen, edota hobeki esanda, ume horiek behartzen dituzten ikasketen menpe geratzen dira eta; hala nola, baserriatik kotxez jaitsi behar eta bukatutakoan berriro ere haien bila...

Honez gain, bentaja ugari ikusten diot kaleari. Dena gertuan daukazu: erosketak direla, jendearekiko harremanak etb. Eta azken hau oso garrantzitsua da, nere ustez; izan ere, baserrian bakardadea da nagusi eta ez jende falta duzulako. Bertako lana kontutan izanik, ez dago kasik ordu librerik eta, horren ondorioz, bakardade hori nagusitzen da inguruan.

Baserrira bizitzera joango liratekeela esaten didaten zenbait kaletarri, joan daitezela esaten diet, baina doazela besteok bizi izan dugun hori aguantatzera. Akaso, oker nabil, baina uste dut haien esantetan ez dela kontenplazten baserria bere osotasunean.

Nik, behintzat, kalearen aldeko apustua egiten dut, kalean askoz ere gustorago bizi naiz eta.

Amaia Basterretxea



Baserria bai, bera gabe jai. Nekazaritzak sufritzen dituen estutasunak, baserriarrei ematen zaien errekonozimendu sozial eta ekonomiko eskasa edo hutsala, hauek denak gertatu arren, baserriaren alde egiten dut eta BAIEZKO biribila esaten dut.

Baloreak errentagarritasun ekonomiko absolutuaren arauera neurtzen direneko gizarte batean, zaila izan liteke nekazaritzarekin zerikusirik ez dutenek ulertzea baserrian bizi izan eta lan egiteak badituela beste balore batzuk, izpiritualagoak edo bizitzaren filosofiar dagozkionak. Gure arbasoek utzitako ondorenari eusten diotenak, baserriari esan nahi dut, eta badela hauek zutik iraun dezaten borrokatzeko prest dagoen kolektiboa.

Nekazaritza bizibide gisa aukeratu nuen, lan hori egiteko satisfazio moralagatik, naturarekin harreman zuzena suposatzen baitu, aurrez aurreko bat, non etengabe gure bizi filosofiarako, giza harremanetarako funtsezko jakintzak hartzen baitira. Beti Ama Naturak eskaintzen digunaren kontzeptzio baikor batez, bai eta lan sortzaile eta (gero eta gutxiago) lan autonomo bat egiteko aukera ere uzten baitu. Lan produktio eta bizitzarako zeure modua diseinatzeko joan zaitezke, lurraren artisaua izanik. Gainera, familiako nekazal ustiakuntza, gure baserria, familia osoaren elkar-

lana da, bakoitzak ahal duen horretan lan egiten dueneko parte hartzea alegia, familia bizitzarako ere oso aberasgarria gertatzen delarik.

Bestalde, gizartearen partaideak izanik, nekazal komunitate bizi bati eusteko enbidoa dugu, mendetan zehar iraun duten eta galtzeko arriskua duten euskal kulturaren susturriak alegia. Badugu paisaia bati eta ingurune bati eusteko misio garrantzizkoa ere, orekan eta naturalak, belaunaldiz belaunaldi eskuratu zaizkigun nekazal praktika egokiez, janari sano, gozo eta kalitatezkoak lortuz. Eta jatea lehen mailako premia da.

Baserriaz maitemintze honek ekonomikoki uki daitekeena baino "zerbait gehiago" baloratzen digu, baina dudarik ez, baserriaren etorkizuna arriskuan dago. Gizarte guztiak jasotzen du baserriatik eta gizarte guztiari dagokio haren iraupena.

Honetaz pentsatu eta, gure produktuak, lurretik edo zuhaitzetik hartu berriak erosi, besterik ez dizugu eskatzen.

Egitzazu zuk ere zeure ahaleginak, haren iraupe-nerako.


Anselmo Salazar

Kaleko ala baserriko bizimodua?



Celia Pinacho
38 urte, masajista.

Kaletarra naiz, baina baserrian bizi nahi dut. Askatasun handia ematen du baserriak. Bertatik bizi nahiko nuke baina ez modu tradizionalen.



Rosa Astigarraga
19 urte, umezaina.

Baserria triste da eta lana oso gogorra. Kalekoa beste ambiente bat da. Biak ezagutzen ditut eta nahiago dut kalea.



Eulogio Astigarraga
40 urte, brigadako langilea.

Baserrian lan asko egiten da, eta ez dago kalean beste libertade. Gogorra da baserriko bizitza. Ni kalean gustora bizi naiz.



Antonio Gomez
22 urte, igeltseroa.

Baserria lasaiagoa da eta gehiago gustatzen zait hango bizimodua. Kalean lan egiteak diru gehiago ematen du baina behiak eta baserria edukitzea onena da neure ustez.



Jabier Muguruza
45 urte, baserritarra.

Nik baserria maite dut. Kalean hobeto bizi da jendea, baina arazoa da, baserriak laguntasun gutxi duela eta lana ez dela errentagarria.



Maria Luisa Agirrebeña
48 urte, baserriko lanak.

Gogorra da baserria baina ni hangotxea naiz. Kaleak bentaja haundiak dauzka, baina baserrikoa naiz eta han gustora nago. Bizimodua diferentea da oso.

● **AKZKUE** ●
pentsu naturalak
Ubitarte 1 Tel.74 27 58




Andoni Gisasola
ALBAITEROA
k / Barrena 16 EIBAR Tel. 12 19 86

- Medizina orokorra
- Zirugia
- Traumatologia
- Analisisiak
- Radiologia
- Txertoak
- Bainu antiparasitarioak
- Txakur ileapaindegia

MALAPE

SAN JUAN BOSKO JAIA

IMH eta Lanbide Heziketarako Institutuko ikasleek Juan Bosko Deunaren jaia ospatu zuten joan zen ostiralean. Goiz partean hainbat ekintza burutu zituzten; argazkiek erakusten diguten moduan, kirol ekintzen nagusitasuna begibistakoa izan zen. Ikasleek, batzuek parte hartzen, besteek haiek animatzen, giro polita jarri zuten ekintzan guztietan.



Iluntzean, Irazu, Iturriaga, Elortza eta Arozena bertsolari gazteek, jadanik ederki epeldutako giroa berotu zuten. Argazkiko momentuan, Estitxu Arozena eta Irazu, diskotekan nola ligatu behar den adierazten ari ziren.



HISPANIA  ZURICH

C. Romera

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artekale z/g behea. Elgoibar.

Tel: 74 07 52 - 74 29 08

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

Gazte asanbladak lokala eskatzen dio Udalari

Pasa den larunbatean 50 bat lagun bildu ziren Maalako parkean Gazte Asanbladak deitutako bileran. Bertan Asanbladakoek idatzitako eskutitz bat irakurri zuten, Udaletxeari Gaztetxea egiteko lokala eskatuz. Lokalak 100 m2 tako azalerakoa batazbeste eta in-


tsonorizatua beharko du izan bertan kontzertuak... antolatu ahal izateko. Bozketa bidez eskutitza onartu zuten. Orain Udaletxearen erantzunaren zai daudela adierazi digu Gazte Asanbladako kide batek.



Mikel Cornejo komikigilea, Portugaleten saritua

Mikel Cornejo, Elgoibarko KOKOE komiki elkarteko kideak Portugaleteko Komiki lehiaketaren lehenengo saria jaso du koloretako ihardueran. Sari honengatik 85.000 pezeta eta plaka jasoko ditu Mikelek. 21 urteko komikigile gazte honek irabazten duen bigarren saria da honako hau.

Zera komentatu zigun Mikelek komikigintzaren munduaz: "Komikia komunikabide bezala erabiltzeaz gain, edozein gai erreibindikatze bidea ere badaela uste dut".



Gazte txartela eta Disko-guass txartela.

Kultur Etxean disko-guass txartela zein gazte txartela egin ahal izango du nahi duen guztiak. Disko-guass txartela egiteko argazki bana eta jaiotze dataren ziurtagiria eraman beharko da eta 14 urtetik gorakoek soilik egin ahal izango dute. Gazte txartela eskuratzeko nahikoa da N.A.N eta argazkia eramatea. Lehendik egin dutenek Kultur Zerbitzuak abisua eman arte ez dute berritzeko beharrik izango. Txartelak egiteko ordutegia: 11etatik 1era Kultur Etxean.

Misioetako tonbola

Zenbaki sarituak:

Irrati kaxeta.....	3.508
Eskuturreko erlojua	2.390
Erloju irratia	6.910
Erloju irratia	1.621
Erloju irratia	3.536
Erloju irratia	6.723
Aiwa kaxeta.....	1.186
Sanyo Kaxeta.....	4.590
Arcopal baxera	5.721
Arcopal baxera	3.410
Maleta.....	4.291
Koadroa	2.036
Irudiak	3.722
Bandeja.....	3.139
Edalontziak	4.494
Gizonezkoen nezeserra.....	3.917
Izarak	5.229
Argazki kamera	0.695
Argazki kamera	2.938



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



PUB



elgoibar

"Bizitza aurrera ateratzeko arriskatu egin behar da"

Esaldi hau errepikatu zigun Blanka Larrañagak, emakume gazte honek. Orain dela lau urte ausartu zen enpresa txiki batekin eta gaur egun, horretan doazkio bere denbora eta esfortzu guztiak. Hona hemen bere esperientzia.

-Zer da eta zertara dedikatzen da KOPI-LAN?

Izenak berak dio: kopiak eta lanak. Kopiak, enkoadernaketak, planoen berregintzak eta frantsez eta alemanaren itzulpenak egiten ditugu. Lan guzti hauek, azken batean, inprimategi batean egiten ez dituztenak dira, kantitate handiak eraman behar dituzulako. Liburutegi eta inprimategiaren arteko lekua betetzen dugu guk, azken finean.

-Noiz eta nola sortu zen KOPILAN?

Idea aspalditik neukan buruan. Inguruko kopiagintza guztiak aztertu nituen, nola funtzionatzen zuten e.a. 1989ko apirilaren lehen hasi ginenean seriooki.

-Gaur egun agian, arris-kugarriagoa da enpresa bat sortzea. Zerk bultzatu zintuen zu?

Gu hasi ginenean, 1989an, ez geunden gaur egun bezalako egoeran. Momentu hartan ez nuen lanik eta ume bat daukat. Bizitza aurrera ateratzeko eta etorkizun bat jorratzeko arriskatu egin behar duzu. Uste dut egoki aukeratu nuela. Jende ezagunak komentatzen



Liburutegi eta inprimategiaren arteko lekua betetzen du KOPILANek.

zituen gauzetatik sortu zen ideia, eta gero, handik hona ibili eta arriskatu azkenean. Bi aukera daude: irabaztea ala galtzea. Txarrean, galtzean alegia, behintzat bada-kizu saiatu zarela eta gogor egin duzula lortze-arren.

-Emakumeak oraindik, zailtasunak dituzte enpresen munduan mugitzeko?

Enpresa bat sortzeko, zailena emakume baten-tzat ez da, inolaz ere, bere inteligentzia edo kapazi-

dadea erakutsi beharra, edo ez da hori behintzat traba; denok kapaz garela uste dut. Problema dago, denok daukagula familia bat atzean edo gehienak ezkonkuda daudela; senar bat, seme-alaba batzuk eta etxeko lanak ditugula. Horrelako enpresa bat jartzen duzunean, lehenengo gauza zera da, ez dagoela ordurik. Beraz, oso zaila da familiak, senar edo seme-alabek, hori pairatzea. Nik zortea dut gurasoak laguntzen didatelako. Hala ere, oso

zaila da familia, esan dezagun, normal baten-tzat. Gizona zurekin badago asuntoan, ulertzen dizu, baina bestela, oso zaila da.

-Etorkizunerako KOPI-LANen zer plan dituzu?

Eutsi momentuz. Une txar hau jasan eta gero, plan, plan bezala, lanean jardutea. Orain zuhurra izateko garaia da eta daukazuna, mantentzen saiatu. Aurrerago, Auskalo! KOPILANen etorkizuna? Lan eta lan egitea. Horrek ez dit beldurrik ematen. Bai ematen dit ordea, etorri goizean lanera eta bezerorik ez sartzeak. Bizitzan borrokatu, borrokatu egin behar da denengatik.

-Zer zor diogu Gutemberg-i?

Asko. Liburu batetik 30 kopia egiten hasten bazara, hil zaitezke saiakeran. Ezinezkoa da. Eskulanak egiteko, gaur egun ez dago denborarik zeren denok, oso azkar mugitzen den errobera batean bizi gara eta gelditzen bazara, trenetik jeisten bazara, dena galdu duzu.

Myriam Aldazabal

Juan Ignacio Landa

Landa harategikua



- Zenbat urte ofizio honetan? -25
- Jateko zer nahiago dozu, okelia ala arraina? - Nik okelia, ez da propagandia baina okelia, bai.
- Asteko egunik onena? - Barixakua.
- Okela asko jaten al dogu elgoibartarrok? - Bai, asko, asko.
- Zer eramango zenuke irla batera? - Liburua edo... entretenitzeko zeozer.
- Zertan ematen dozu denbora libre? - Mendian lanean, arbolak sartu eta... en fin, baserriko lanetan.
- Orduan zer nahiago baserria ala kalea? - Baserria.
- Uda ala negua? - Uda.
- Trikitixa ala pasodoblea? - Trikitixa bai, jode!
- Zer moduz egiten dozu lo? - Bastante ondo, bastante ondo.
- Ikusi dozun azken pelikula? - "El guardaespaldas".
- Etorkizunean zer egin nahi zenuke? - Jubilatu eta ondo bizi.
- San Bartolomeiak ala San Antonak? - San Bartolomeiak. Ambiente gehiago egoten da.
- Bibliak haragia pekatua dala esaten dau... - Bakoitzak bere mentalidadea daka eta errespetu egin behar da.
- Elgoibarko futbol taldea ondo al dabil ligan? - Ni ez naiz futbol zalea. Nik futbolearen ezer ez.
- Okelen artean zein dozu zuk gustokoena? - Behiana.
- Mendia ala hondartza? - Hondartza.
- Ba al daukazu etxean animaliarik? - Ni bizi naizen etxe unifamiliarrean badauzkat oiluak eta txakurrak.
- Asko ibiltzen al zara kotxean? - Bai, hori bai, toperaino.
- Okela ebate kontuan urteek ba al dute eraginik? - Bai asko, denean bezela.

Jon Eugi

BERTSOTAN

Santa Ageda

Kandelaria, San Blas eguna ta Santa Ageda bezpera koplaxo batzuk kantatu gabe ez gaitezen bada gera.

Kalerik kale, auzorik auzo, eta baserri baserri ohitura zaharra egin nahi degu aurtengoan ere berri.

Eskean dugu botatzen hainbat irrintzi, doinu ta kantu. Baina ematea nahi ez duena ez genuke nahi behartu.

Santa Ageda omenez dugu egin egun kantaria, ta jasotako janariakin, badaukagu afaria.

Koplaxo batzuk asmatutzeko egin dugu ahalegina bost koplakaskar lortu ditugu ta hau da burukomina.

Jon Barandiaran
Iñigo Aranbarri

ASESORIA
GO:IR
AHOLKULARITZA

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAk
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAk

San Bartolome 1 behe. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29 Elgoibar

Anjel Mari Albizu Gipuzkoako Judo txapelketako faborito

Anjel Mari Albizu 23 urteko judoka elgoibartarra iaz lesio baten ondorioz galdu zuen Gipuzkoako txapela lortzen saiatuko da igande honetan.

Erreteriko polikiroldegian arratsaldeko 4retan izango da Angel Mariri dagokion Senior mailako (86-95 kilo artekoa) lehia.

Judoka gazte honek baditu dagoeneko beste hainbat titulu garrantzitsu; besteak beste, Euskadiko Txapela eta Espinia mailako 3. postua.

Eskubaloi ekitaldiak

Klub Deportiboko eskubaloi taldea laister hasiko da eskoletako hurrei kirol hau nola praktikatu behar den irakasten. Helburua datorren denboraldirako kadete talde indartsua osatzea da. Apuntatu nahi duenak, Polikiroldegiko Eskubaloi Taldearengana jo beharko du.

Elgoibarko eskubaloi kadeteko A taldeak bostgarren postua lortu du sailkapen orokorrean, postu honek Kopa jolasteko aukera ematen diolarik. Bigarren taldea berriz klasifikatu gabe geratu da ortaingoan.



Iñigo Arriola: Mendaroko elgoibartarra Eibarren

- **Zer dok hiretzat futbola?** Bizimodua, bizitzeko era bat.

- **Dibertitzen al hau futbolak?** Dagoeneko ez, gero eta gutxiago.

- **Tranposo xamarra haizela ere esaten juek, egixa al dok?** Esaten bajuek, egixa izango dok,... bueno, kartetan akaso.

- **“Peña Arriola” ere bajak, zer esan nahi jok horrek hiretzat?** Futbolaren bitartez ere lagunak egin leizkela.

- **Zer ematen jok eta zer kentzen jok futbolak?** Eman, ondo bizitzeko aukeria eta kendu, juer-gak egiteko astixa.

- **Zer dok gustokoago: larunbateko Guassa ala igandeko Txitxarroa?** Igandeko Txitxarroa.

- **Zergatik?** Horrek partiduan nik ere jokatu juatela esatea nahi jok.

- **Bertsotzalea haizela ere bajakixau, zein dok gustokoena?** Andoni Egaña.

- **Ba al dakik bertsoren bat buruz?** Bai, Peña eta Egañan amama eta ilobana.

- **Aldageletan egin doken majaderiaren bat?** Asko dituk baina bat esatekotan..., behin “Moskote”ri bere kaltzon-



tzilo garbiak, aldageletan jauzan zikin eta apurtutako batzurengatik aldatu nizkion eta han jun zuan bere etxera kaltzontzilo zikinak jantzita!!

- **Eta aldageletatik kanpo?** Neska batekin gelditu eta azaldu ez.

- **Asko ligatzen al juek futbolistek?** Hala esaten juek, baina nere kasuan apenas sobrate haundirik dagoen.

A.A.

- Adina: 25
- Obsesioa: Jatea.
- Lujo bat: Osasuna.
- Zer defendatzen dok: Lagunak.
- Zerk kezkatzen hau: Euskarak.
 - Zer maite dok: Futbola.
- Zer gorrotatzen dok: Futbola.
 - Neska-lagunik: Ez.
 - Gogorik: Ezta ere.

SOLOZABAL AUTO ESKOLA

GARRAIOLARIEN IKASTAROA

MERKANTZIA, BIDAIARI, NAZIONAL, NAZIOARTEKO
ETA AGENTZIA TITULUAK

GIDA BAIMEN GUZTIAK

Toribio Etxeberria 5, Eibar. TEL: 70 23 84

ZUBIAURRE

74 44 44

Joku eskolarrei errepassoa (I)

Joku eskolarrak antolatzen hasi zirenetik 18 urte pasa dira. 1975. urte ingurua zen hura. Garai hartan, Udaleko Kultur Komisioko kideek eta Txabo Arrietak bat eginez, Joku eskolarren antolamendua prestatzen hasi ziren. Urte haietan 1000tik gora haurrek ihardun zuten eskola arteko kirolean.



1974ko argazkian Pilar eta Ikastolako alebin taldeak, futbol partidurako prest.

Lau eskoletako haurrek, Ikastola, Pilar ikastetxea, Muguruza eta Aita Agirre ikastetxeak, 3. mailatik 8. mailara artekoak futbola, saskibaloia, eskubaloia, xakea, txirrindularitza, atletismoa, esku pilota eta palan aritzen ziren larunbat goizeko. Horretarako, Elgoibarko hainbat elkarte, kirol hauen ardura hartu zuten: Gure-Bidek txirrindularitza, Zubi-Ondok

xakea, Ego-Tokik atletismoa, Klub Deportiboak eskubaloia, saskibaloia eta futbola, Baltasarrek pilota eta Morkaikok noizbehinka egiten ziren mendira irtenaldiak. Gaur egun, kirol bakoitzean klubak sortu dira.

Garai hartan, eskolako haurrek ez zuten gauregun kirola egiteko dagoen hainbat kirol instalakuntza erabiltzeko aukerarik. Asko gogoratuko dira,

Plaza Handiko Frontoian zenbatetan jokatu zuten futboleak eta eskubaloian, edo Sigmako frontoian jokatzen zituzten esku pilota eta pala partiduetan. Beranduago Pilarreko ikastetxea eta Aita Agirre enparantza izan ziren joku eskolarren jokaleku.

Urte hauetan egindako lanari esker, borondatezko lanari esker nagusiki, gaur egun arte iraun du

joku eskolarraren tradizioak. Kultur komisio eta gurasoez gain, ikastetxe bakoitzean arduradun bat zegoen. Egun, Udal Kirol zerbitzuak, Foru Aldundiaren laguntzaz hartu du bere gain 1000 inguru diren haurren koordinazioa eta Elgoibar, Ordiziarekin batera joku eskolarren aintzindari izan dela aipatu.



Anjel Jauregi

“Garai hartan eskoletako haurrek ez zuten kirol egiten. Haurrek, bere kabuz egingo zuten zerbait, baina guk joku eskolarrak egin nahi genituen eta hortik sortu zitzaidan ideia. Hasieran borondatezko lana eta elkarten laguntza funtsezkoa izan zen”.



Roberto Arrieta


“Zazpi urtez ibili nintzen joku eskolarrak antolatzen. Herri kirolek ere bazuten beren lekua; soka tira, arto jokia eta horrelakoak ere egiten genituen. Kirol guztiak kalean egin beharra zegoen, pista beltzean, Plaza Handian... Tripitikoak ere ateratzen genituen. Horrek lan izugarria zeukan, hainbeste izen eta dena eskuz egin behar. Dirua? Udalak zerbait ematen zigun eta dendetan baloiak, kanastak eta horrelakoak eskatzen genituen”.

Estarta Elkartea: Sigmako langileek auzoarentzat sortua

Auzoko etxebizitza multzo berriarekin batera, Sigma enpresak soziedadea egiteko lokala eman zuen. Hori 1963. urtean izan zen. Soziedadea, Sigma lantegiko langileek osatu zuten, eta beharrezko baldintzak, bi: Sigmako auzokide eta 18 urtetik gorakoa izatea.

Gaur egun Estarta elkarteko kide izateko, nahikoa da auzokide izatearekin, Sigman lan egitea jadanik, ez da erabakiorra. Azken urteotan elkarreak ez du garai batean bezala ekintza askorik antolatzen. Urtero esku pilota txapelketa egiten dute, maiatzean hasi eta uztailean bukatu. Elgoibarko auzo guztietakoek hartzen dute parte.

Garai batean³ Sigma auzoko jaiak egiten zirenean, elkartekoak ibiltzen ziren jaien egitaraua prestatzen, baina duela hamabi bat urte jaiak ospatzeari utzi zioten. Santiago eguna eta bezpera izaten ziren ospatzen ziren egunak, eta elkartekoek diotenez, giro polita egoten omen



Bi elkartekide beren sukaldaritza jakinduria erakusten.

zen. Berbena eta taberna ere jartzen zuten. Inoiz, jaietan etekin edo irabazirik ateratzen bazuten, auzoan beharra zuen bati ematen zitzaion diru hura. Baina, diru kontuak zirela eta, ez dute berriro auzoko jairik antolatu.

Elkarre honetan, bada- go besteetan ez dagoen funtzio bat: kamareroarena. Pertsona bat kontratatzen dute edariak zerbitu eta lokalaren mantenuaz arduratzeko. Zuzendaritzak behar den guztia erosten du eta kamarero-

ak taberna batean bezala lan egiten du. Eta taberna batek bezala ordutegi bat ere badu: astean zehar arratsaldeko 6etatik gaueko 11etara zabaltzen da eta larunbatetan, gaueko ordubatean isten da.

MINGAINA

8 lagunentzako osagaiak:

2 kilo terdi mingaina, gatza, berakatza, olioia, arraultza

Nola egin: Olioia berotzen jarri eta bertan berakatza prijitu. Berakatza oliotatik atera. Mingaina irine-

tatik pasatu ondoren arraultzaz igurtzi. Behin hori egin eta gero, mingaina oliotan jarri, baina oso beroa egon ez dadila zaindu. Ondoren, mingaina prijitu baina ilundu baino lehenago atera behar da; bi-hiru minutuz bakarrik eduki behar da sutan.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1963

Bazkide Kopurua: 140

Presidentea: Victor Perea

Urteko kuota: 9.000 pta.

Berezitasuna: Gastronomía

Helbidea:

Eulogio Estarta-1

URZELAI

ELEKTRIZITATEA-ARGIGINTZA

Santa Ana, 12-14 - Tel. 74 13 76 Elgoibar

Fotero

OKINDEGIÀ

OPII LDEGIÀ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35



San Frantzisko 23, Tel. 74 27 58

Santa Ageda: Koplak kantatuaz datorkigun ohitura

San Blas opilen usai artean, beste ospakizun zahar bezain herrikoi baten txanda heldu da: Santa Ageda.

Elgoibarren, Gipuzkoako beste hainbat herritan bezala, Santa Agedako koroak herriko kale eta auzuneak zeharkatzen ditu koplak kantatuaz eta etxez etxe eta dendaz denda jabearen borondateari erregutuaz. Tradizioz, bezpera izan bada ere kanturako eguna, Elgoibarren aspalditik kantatzen da larunbatean.



AZKUE

1963. urtean Santa Agedako koplak Parrokoari abesten.

Inork ez daki ziur noizkoa den Santa Ageda bezperan kantura irtetzeko ohitura eta are gutxiago haren zergatia. Urtero 60 bat lagunek, baserritar jantzita eta kriseilua eta makila eskutan dutelarik Sigmatik San Pedrorainoko bidea egiten dute. Goizeko 9etan Parrokoari lehen koplak kantatu ondoren, goiza ematen dute kalez kale, eguerdiko 2ak aldera, Errosario kalean, Amabirjiñari Salbea kantatzeko. Horrela dio aurtengo koplaren bertso batek:

*“Santa Ageda ospatutzeko
atera gara kantura,
beste urtetan bezala aurten
guk artu degu ardura.
Nolabait ere pasa bearra
dago lurreko denbora,
alde guztitan bada zotiña
iñor eztao gustora”.*

Gaurregun koplak ez dira garai batean bezala, momentukoak, inprobisatutakoak izaten. Aldez aurretik pare bat entsaiu egiten dira bertsoak ikasteko. Hala ere, oraindik, ezagun bat edo norbait ikusi eta koplariak bapateko bertsoak

botatzen ditu. Taldekoek beti, arreta handia jarri behar dute koplariak egin eta esaten duenari, ondoren harek esandakoari erantzun behariko diote eta.

Bertsoak graziarekin botaz gero, lortzen den efektua noski, emankorragoa izan ohi da. Harategiaren aurrean geldituta, urdai eta txorizo ederrak begiz jo ondoren, koplariak bere abilezia erabiltzen du txorizoa eta urdaia lortzeko.

Dirutan biltzen dutena, Caritas elkarteari ematen zaio. Garai batean, ordea, beharrean zeudenen artean banatzen zuten dirua, asko-

tan gaisorik zegoen norbaitentzat izaten zelarik.

Omenaldia

Aurten, Santa Agedako koroa osatzen dutenek, Santi Kortabarría elgoibartarrari omenaldia egingo diote, 50 urtez Santa Agedan aritu izateagatik. Santik berak esan digunez, aurten ez da koroarekin aterako baina ziur gaude gertutik jarraituko dituela abeslarien gorabeherak. Duela 13 urte Etxegiña zenari egin zitzaion omenaldian Santik eman zion Etxegiñari garai-kurra. Orain bera izango da egingo dako lanagatik saria jasoko duena.

Santa Agedaren historia

Euskal Herriko santoralean, Santa Agedaren ospakizuna zaharrena eta herrikoinetarikoa izango da ziurrenik. Santa Ageda Sizilian jaio zen 230. urtean. Edertasun handiko neskatxa omen zen Ageda, eta Kinziano gobernadoreak berarekin ezkondu nahi zuen. Baina, Agedak ezezkoa emateko maitasuna baino indartsuagoa zen arrazoia zeukan: Santa Ageda kristaua zen. Honela, mendeku bila, bularrak moztu zizkioten. 251. urtean hil zen, otsailak 5ean.

Kristauek, emakume ezkonberri eta haurdun daudenek haur jaioberriari bularra eman diezaioten eskatzen diote Santa Agedari.

6 Larunbata

16,00 XAKEA

1. maila: Elgoibar-Tolosa
3. maila: Elgoibar-Eibar
Tokia: Santa Klarako eskolaurrea

16,00 ESKUBALOIA

Jubenilak (Mutilak)
C.D. Elgoibar-Urrietako K.E.
Olaizaga kiroldegian

15,30 ESKUBALOIA

Kadeteak (Mutilak)
C.D. Elgoibar-Bizkor
Olaizaga Polikiroldegian

19,30 ZINEA

"La ciudad de la alegria"



7 Igandea

12,30 MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Egitaraua:

- *Lanceros de la reina*
- *El caballo de bronce*
- *Largo de la sinfonia del Nuevo Mundo*
- *Katiuska*
- *Herb Alpert Selection N° 1*

Tokia: Herriko Antzokian

16,30 ZINEA

"Grita".

19,30 ZINEA

"La ciudad de la alegria"

8 Astelehena

19,30 ZINEA

"La ciudad de la alegria"

10 Asteazkena

15,30 IPUIN KONTAKETA

Kontalaria: Koldo Ameztoi
Tokia: Kultur Etxea
Antolatzailea: Udal Euskaltegia



Koldo Ameztoi

20,00 TXARLA

Gaia: Adierazpen Askatasuna
Tokia: Kultur Etxea.
Antolatzaileak: Adierazpen askatasun gabetuak.



HARPIDETZA TXARTELA

elgoi**BARREN** herri astekaria, **DOHAINIK**, astero buzoian jaso nahi baduzu bete harpidedun txartela eta elgoi**BARREN**era bidali edo deitu telefonoz.

IZENA:.....

ABIZENAK:.....

HELBIDEA:.....

HERRIA:.....

TEL:.....

elgoi**BARREN** astekaria, Ubitarte 4 behea.(20.870) Elgoibar
TEL: 74 16 26

TXANDAK

FARMAZIAK:

- 6, larunbata: **ETXEBERRIA**
- 7, igandea: **ETXEBERRIA**
- 8, astelehena: **ORMAZABAL**
- 9, asteartea: **ORMAZABAL**
- 10, asteazkena: **ORMAZABAL**
- 11, osteguna: **ORMAZABAL**
- 12, ostirala: **YUDEGO**

OKINDEGIAK:

- 7, igandea: **ZABALETA**



Etxebizitzak

Tituludun irakasleak
O.H.O.ko klase partikula-
rrak ematen ditu.
Alazne Tel:74 28 53

"Modulo 3 de Fabricación
Mecánica" ikasketak amai-
tuta lan bila nabil.
Jon Etxabe Tel: 74 06 19

Aseguru aholkularitzak
KOMERTZIALAK behar
ditu.
San Bartolome, 15 behea.
(San Bartolome eta Erro-
sario arteko pasalekua)

Lana

Salerosketak

7 urte inguruko ume bat
Ihauteritan mozorrotzeko
KIMONO bat emango
nuke bi mila errialen truke.
**74 07 85 telefonora deitu
gauetz.**

Organu HAMOND bat. 8
baxu, bi teklatu eta sekzio
ritmiko duna. 50.000 pzta.
Alberto: 74 14 94

Nintendo Kontsola bat sal-
tzen dut. AUKERA!!
Tel: 74 23 27

Kontaktuak

Intsumisioari buruzko
informazioa nahi baduzue,
idatzi lasai helbide honeta-
ra:
**Elgoibarko Talde Antimi-
litarista, 70 Postakutxa,**
20.870 Elgoibar.

Kalean entzun diren xurru-
murruei aurre egiteko,
MAZANTINIkook adiera-
zi nahi dugu: **Atal honetan
orain dela aste batzuk
azaldutako mezuarekin
ez dugula zerikusirik.**
**Guk ez dugu horrelako
trikimailurik behar liga-
tzeko. Ez da gure estiloa.**

Orrialde honetako iragarkiak doan dira.
Testua idatzi eta bidali elgoiBARREnera.

TESTUA.....

Ubitarte 4 behea, 20870 Elgoibar tel: 74 16 26

ETBko ADOS? programarako gonbidapena elgoibartarroi




Euskal Tele-
bistak, Ados?
zuzeneko pro-
graman publiko
bezala parte hartzeko deial-
dia zabaldu du Elgoibarren .
Bertara joan nahi duten guz-

tiontzat ETBk autobusa jarri-
ko du dohainik eta irteera
gaueko 8.30etan izango da
King-Kongeko zubitik. Pro-
grama eguna otsailaren 22a
izango da eta programaren
ordutegia gaueko 9.30tik

10.30etara. Programa aurre-
tik lancha eskainiko dute.

Bertan publiko izateko,
20-22 urtetik gorako adina
izatea eskatzen dute eta
gehinez 55 pertsona joan
ahal izango dira. Izena eman

nahi duzuenok Udaleko Eus-
kara Zerbitzuan egin ahal
izango duzue: Nafarroa
Plaza 3. Tel: 74 43 66. Izena
emateko azken eguna otsai-
laren 10a izango da.



karkizano

San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

arrieta
modak


San Bartolome 18
74 08 49

GURBIL *Jatetxea*

- Pintxoak - Eguneroko menua
- Karta - Plater konbinatuak

Orain probatu etxean egindako PIZZAK

Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar



G^WOLF berria: Kotxe honetaz asko idatzi da.

Autorik Seguruena

Urteko autoa Europan

Zatoz eta GOLF batekin irtengo zara.

Autos Eibar, S.A.



Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 EIBAR